

Uda soinuei adio

I

Sarri zaratak soinuarekin nahikoa alde ez al du? diferentzia nabarmena da, gutxi batzurentzat salbu. Iraila hasten zaigun sasoiaren ta udak indarra galdu... soinuak berez urritzen dira eta zaratak ugaltu.



MADDI SOROKA

IV

Suhiltzaile ta ambulantzien sirena hotsek ze gudu! Zabor-biltzaile, belar-moztaile, herri-lan asko ditugu. Baina kexatu ote gitezkeen ez nago oso seguru aurretik “herri” daramanean hobeto onartzen dugu.

II

Industrialde asko egin da gunetikan aterata. Irailarekin lanera doaz auto pilak ilaraka. Txirrindan gutxi abiatzen da urruntasuna dela-ta, orain autoek sortu ohi dute enpresek hainbat zarata.

V

Gure auzoko bizi(laguna?) zergatik ez dugu hartzen: egun eta gau, dinbi ta danba etxe-hormak mailukatzen. Gozaten al du, iltze, puntapax edo bro(n)ka-punttak sartzen? Horren zioaz sikoanalistei galdetzen ez naiz ausartzen.

III

Eta zarataz ari garenez goazen autotik motora: motozalea igo daiteke zarataren Olinpora. Sikoanalistei galderatxo bat azaleratuz gustora... Azeleratze zaratarekin nor sentitzen den asko da?

VI

Egunotako sentimendua bota dut halabeharrez baina zaratak ez nauka zertan jarri bekoki haserrez. Bizi-seinale ere badela uler bainezake errez: Hil-kutxan ez da zaratarikan, haurra sortzen da nigarrez.